Urteko kirol lorpenen hautagaiak aurkezteko epea zabaldu du Andoaingo Udalak

2026.10.27- Andoaingo Udalak urteak daramatza herriko kirolariak eta taldeak omentzen dituen Kirol Lorpenen ekitaldia antolatzen, eta aurten ere izango da horretarako tartea abenduan egingo den ekitaldian. Hori horrela, urtean zehar erdietsitako lorpenak omentzeko hautagaiak aurkezteko epea ireki du orain Udalak.

Ekitaldia abenduaren amaieran egingoden arren, dagoeneko zabalik dago hautagaiak aurkezteko epea.Udalak deia luzatunahi die kirolelkarteei eta herritarrei azkendenboraldian kirol arloanegindako lorpenen proposamenak helaraz ditzaten. Hautagaitzak azaroaren 30a baino lehen bidali beharko dira allurralde@andoain.eus helbidera, Allurraldeko webgunean dagoen fitxa beteta (https://labur.eus/kirol_lorpenak_2026).

Hautagaiak proposatzeko irizpideak

- KirolariaAndoainen erroldatua egoteaedo Andoaingo kirolelkarte batean fitxa edukitzea.
- Gipuzkoako, erkidegoko edo estatuko txapeldun edo txapeldunorde izatea, edo maila igoera edo antzeko lorpenak eskuratu izana.
- Munduko txapelketetan partehartu izana, sailkapena edozeinizanik ere.

Udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu hautagaiak proposatzera.

Proposamenak egiteko: https://labur.eus/kirol_lorpenak_2026